


# DAMOCRACY



## CINE INVISIBLE

FESTIVAL INTERNACIONAL  
FILM SOZIALAK BILBAO

### GIDA DIDAKTIKOA

[www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org) [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org) Tel / Fax: 94 602 46 68

**KCD**  
Kultura Communication Desarrollo  
ONGD  
ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA - ENTIDAD DE UTILIDAD PÚBLICA



**e** GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

## **KCD-GGKE**

Kultura Communication y Desarrollo "KCD" Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea da. Honen MISIOA kultur artekoa, parekidea eta iraunkorra izango den giza garapena lortzea da, kulturaren eta komunikazioaren bitartez.

KCD-GGKE onura publikodun izendatu dute, eta EAEko administrazio-erregistroan AS/B/14091/2008 kodea darama.

### **KCD GGKEaren oinarriak:**

1. Herritar global eta konprometituak.
2. Komunikazio demokratiko eta anitza.
3. Baztertuta egon ohi diren kolektibo eta komunitateen integrazioa.
4. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.
5. Aniztasun kultural, etniko, erlijiozko, politiko, sozial eta sexu-joerazkoa.
6. Giza Eskubideak, bai norbanakoenak, bai taldeenak.
7. Naturarekiko harreman iraunkorra.
8. Bake-kultura positiboa.
9. Berdintasunean oinarritutako harremanak, bai pertsonen artean, bai herrien artean.
10. Migrazio-prozesuak gizatiartzea.

### **KULTURA eta KOMUNIKAZIOA funtsezko osagarriak dira edozein pertsona, komunitate edo herriren GARAPEN prozesuan.**

KCD GGKEk gizarte hobe baten sorreran bere alea jarri nahi du. Bertan, izatea gailentzen zaio edukitzeari, kultura eta naturaren aniztasuna daude oinarrian eta baztertuta dago edozein bortxakeria eta botere-gehiegikeria.

KCD GGKEk genero arteko berdintasunaren alde dihardu, aukera-berdintasunik ezak eragindako bidegabekeriak desagerrarazteko. KCD GGKEk premiazko deritzo txirotasuna, bereizkeria, kalte-beratasuna eta gerrak bukaraztea; izan ere, milioika pertsonari eragiten diote mundu mailan, eta giza garapen iraunkorra galarazten dute.

### **KCDren lerro estrategikoa, garapenerako hezkuntzan**

- 1) Kultura- eta gizarte-komunikazioa sustatu eta zabaltzea, lanabes garrantzitsu eta baliotsuak diren heinean Tokiko Giza Garapena lortze aldera.
- 2) Giza eskubideen, genero-parekidetasunaren, kultura artekotasunaren eta garapen iraunkorraren zabalkunde eta promoziorako espazioak indartu eta hedatzea.
- 3) Kulturaren, komunikazioaren eta garapenaren inguruko egitasmoen eztabaida, elkartruke, hausnarketa eta sustapena garatzeko guneak indartu eta hedatzea.
- 4) Hainbat sektoretara bideratutako formazio- eta ahalduntze- guneak sortzea, batez ere emakumeek osatuta, garapenerako komunikazioan parte-hartzaile moduan.
- 5) Zinema-sektorean parekidetasuna sustatzea, batez ere gizarte-erlaketari begira egindakoan.

**Jarduerak:**

- Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia.
  - Nazioarteko Kultura, Komunikazio eta garapenerako Topaketak.
  - Genero-ikuspegiari dagokion kultura, komunikazio eta garapenerako formakuntza.
- Eta abar...

**KCDren garapenerako kooperazio-egitasmoak gauzatzeko ildo estrategikoak**

- 1) Munduan zehar garapenerako komunikazioan diharduten pertsona eta erakunde sareak sustatu eta laguntzea.
- 2) Txiroitutako herrialdeetan giza eskubideen sustapenerako lanak garatzea, kultura- eta gizarte-komunikazioaren bitartez.
- 3) Genero-parekidetasuna eta emakumeen ahalduntzea bultzatzea garapenerako kulturaren bitartez.

**Jarduerak:**

- Emakume eta herri indigenen informazio eta komunikazioa sustatzea (Ojo de Agua, Mexiko).
- Genero-indarkeriaren aurkako “Loma Verde” telesail hezitzailea indartzea (Fundación Luciérnaga, Nikaragua).
- Kairoko Emakumeek egindako Zinemaren Nazioarteko Jaialdia laguntzea, baita Latino-amerikako nahiz Euskadiko arabiar emakumeen zinema-karabanak ere (Klaketa Árabe, Egipto).

**Itzarmenak:**

- CIFP Tartanga LHII (Erandio)
- IES Mungia BHI (Mungia)
- IES Ballonti BHI (Portugalete)
- IEFPS Iurreta GLHBI (Iurreta)
- IES Ibarrekolanda BHI (Bilbao)
- IES Artaza–Romo BHI (Leioa)
- IES Aixerrota BHI (Getxo)
- CIFP Nicolás Larburu LHII (Barakaldo)
- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)



## 1. FITXA TEKNIKOA

**Izenburua:** Damocracy

**Urtea:** 2013

**Iraupena:** 35 min

**Nazionalitatea:** Kurdistan, Brasil, Kanada

**Hizkuntza:** V.O. Ingelesa, portugesa, kurduera

**Azpitituluak:** Gaztelania, euskara

**Errealizazioa / Ekoizpena:** Todd Southgate

**Generoa:** Dokumentala

**Kategoria:** Garapen iraunkorra

## 2. SINOPSIA

Damocracy, ingeleseko dam (urtegi) eta grekerako krátos (botere) hitzen elkarketa da. Ilisu (Turkiarren mende dagoen Kurdistan), (BBVak finantziatuta) eta Iberdrolak parte hartzen duen Belo Monteko (Brasileko Amazonia alde) proiektutzarren kasuak eta erresistentzia-jarrerak biltzen dituen filma da. Horrela, bi proiektuek kaltetutakoek zein bi proiektuen aurkako ekintzaileek bidaiak egin dituzte besteen esperientziak ezagutzeko asmoz. Kurduak Amazonian; Indigenak Kurdistanen: kultura erabat bestelakoak, baina arazo eta borroka bera dutenak. Baita euren lurraldeari dioten ikaragarritzko maitasuna ere; Lurrarekiko sekulako maitasuna.

## 3. PELIKULA AZTERTZEN

- A. Zein da pelikularen mezua?
- B. Zertarako balio dute ibaiek?
- C. Zeintzuk dira ibaietan presa handiak jartzearen ondorioak?
- D. Nork egiten du berba pelikulan?
- E. Elkarrizketatutako pertsona batek zergatik dio "Ibaia da gure merkatua"?
- F. Presa eraikitzearen ondorioz, zer diote inguru horretan bizi direnek?



#### 4. GARAPEN IRAUNKORRA ETA ENERGIAREN EKOIZPENA

Giza Garapen Iraunkorra kontzeptuak bere baitan du gizateriak gaur egun dituen beharrak asetzeko ahalmena, etorkizuneko belaunaldien aukerak eta baliabideak kolokan jarri barik.

Lur planeta ez da mugagabea. Zenbait kalkuluren arabera, azken bi hamarkadetan gizakiak plantak dituen baliabideen herena kontsumitu du.


Energiaren ekoizpena oinarritu izan da energia-iturri ez-berriztagarri eta kutsadura handia eragiten zutenak izatean, batez ere petrolio eta gasa, zeintzuen erreserbak gero eta txikiagoak diren. Beste iturri batzuen bila, energia berriztagarriak garatzen hasi dira -leheneratzen diren baliabideetatik eratorriak- ura (energia hidraulikoa), airea (energia eolikoa) eta eguzkia (eguzki-energia) bezalakoak.

Energia-mota bat berriztagarria izateak ez du zertan derrigorrean esan nahi energia garbia denik, nahiz eta askotan energia-enpresek euren publizitatean hori baieztatu. Naturarengan duen eragina ikertzen duten azterketek adierazi bezala, energia-mota bat garbia da bere ekoizpenean ingurugirorako kaltegarriak diren eraginak sortzen ez direnean, hondarrik sortzen ez duelako ala sortzen dituenak egoki tratatzen direlako.

Duela gutxi onartutako 2030erako *Garapen Jasangarrirako Helburuak* txostenean, baliabideen kontsumoa eta energia-ekoizpena jasangarriak izatearen beharra aurreikusten da.

Ikus dezagun zer eragiten duen gure etxeko argia pizteak, enpresa hidroelektrikoak energia era iraunkorran, garbi eta modu arduratsuan ekoizten ez duenean.

Nola interpretatzen dituzu irudi hauek?




## 5. HIDROELEKTRIKAK ETA PRESAK

Urak ahalbidetzen du Lurrean bizitza egotea. Ibaietan daude lurreko bizitzaren eboluzioa bideratzen duten prozesu naturalak, baita kulturen eboluzioa ere. Bizidun guztiok, bizirik irauteko, edateko ura dugu beharrezkoa. Gizakiok ezin gara urik gabe bizi, eta gaixotu egiten gara kontsumitutako ura edateko aproposa ez bada. Horregatik onartu da ur-eskubidea Giza Eskubide bezala. Baina, UNICEFen datuek adierazi bezala, oraindik orain, 748 milioi biztanle daude munduan edateko uraren faltan. Energia-enpresak ibaiak ustiatzen ari dira, ur gezaz baliatzen dira energia hidraulikoa ekoizteko, eta gehiegizko erabilera horren poderioz, egungo ibai handien bi herenak presek etenda daude. Hala, energia ekoizteko era hau, berriztagarria izan arren, ez daiteke garbi kontsideratu.

Presek etenda dauden ibaiek ur-kalitate eskasagoa dute, eta horrek arrainen migrazioan eta ugalketan du eragina, baita inguruko ekosistemen orekan ere. Halaber, enpresa hidroelektrikoek metano gas kantitate handiak igortzen dituzte, eta horrek planetaren berotze globalean eta berotegi efektua areagotzean eragina du. Kasu askotan, lurralde horietan bizi direnen eskubideak urratuak izaten dira, maiz, mehatxuak edo bortizkeriak eraginda, biztanleak lurraldea uztera behartuak izaten dira edo beren bizibide nagusienak mugatzen dituzte: antolatzeko modua, ohitura eta lurrari lotutako kultura. Ikerketen arabera, orain arte presen erruz munduan zehar 80 milioi desplazatu egon dira.

### 1. ariketa: Lotu itzazu, gezienez bidez, Hidroelektrikoen eragin negatiboak eta eragin-motak.



## 6. INDIGENA HERRIEN ESKUBIDEAK

Kolonizazioa baino lehen, Amerikan jada etnia anitzeko biztanle indigenak bizi ziren. Nahiz eta gaur egun askoz ere murrizagoak izan, komunitate indigenek historian zehar “mendebaldeko munduak” dutena baino naturarekiko lotura harmonikoagoa eta espiritualagoa izan dute.

Azken hamarkadetan, nazioarteko legediak aurrera egin du eta urratsak egin ditu eskubide kolektiboaren defentsan; hala, legedi berriak herri indigenak izendatzen ditu behialako lurralde sakratuen jabe. Herri indigenak ez badu enpresa baten presentzia onartzen, hark ezingo ditu beren lurretako baliabide naturalak erauzi. Hala ere, zenbaitetan, enpresek memento horretan karguan agintari den gobernuaren babesaren izaten dute eta baliabideak erauzten dituzte lurraldearen jabe diren herrien oniritzia izan ez arren. Hori jazotzen ari da, besteak beste, Brasileko Amazonian, Xingu ibaian, Belo Monte presa dagoen tokian.

**2. ariketa: Zure ingurunean naturarekiko harreman harmoniatsua irudikatzen den bineta marraz ezazu.**



## 7. ONDARE KULTURALA

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen Mundu Ondarea (UNESCO) osatzen dutenen zerrenda gizateri osoarena den aberastasun natural eta kultural handiko monumentu eta lekuen ondarea da; babestuta daude, adibidez, enpresa erauzleek leku horietan lanik ez egiteko. Gaur egun, Mundu Ondarearen Zerrendan 936 gune daude, horietako 725 ondare kulturalak dira, 183 ondare natural eta 28 ondare mistoak; horiek guztiak 153 herritan daude barreiatuta. Adibidez, Kurdistan iparraldeko Iisu urtegia, Tigris ibaiaren ubidean eraikitzeak Hansankyef hiriaren ondoratzea eragingo lukeena. Duen historia eta aberastasuna dela eta, hori da munduan leku bakarra Natura eta Kulturaren Mundu Ondare izendatua izateko UNESCOk eskatutako 10 baldintzetatik 9 betetzen dituen.

**3. ariketa: Gurutzegrama. Urarekin lotutako Mundu Ondare izendapena duten lekuak (Betetze-ko, Interneten informazioa bila dezakezu)**

1. Goitik behera. Los \_\_\_\_\_ Parke Nazionala, Argentinako Andeen hegoaldean kokatzen dena, 1981ean gehitu zuten Mundu Ondarearen Zerrendan. Antartida eta Groenlandia eta gero, munduan den hirugarren izotz geruzarik erraldoiena.

2. Horizontala. Bizkaia Zubia, Zubi \_\_\_\_\_ izenarekin ere ezaguna dena, Getxo eta

Portugalete udalerrien artean kokatuta dago. Bizkaiko burdinak izandako kultura-ohitura luzearen erakusgarri da. 2007. urtean izendatu zuten Munduko Ondare.

3. Horizontala. Brasilen dagoen \_\_\_\_\_ Zentrala Babesteko Gunea. Amazona arroak duen babestutako gunerik zabalena da (6 milioi hektarea baino gehiago) eta, era berean, munduan den biodibertsitate-aberastasun handienetakoa.

4. Horizontala. \_\_\_\_\_ Ibaiaren arroa. 1.500 metroko sakonera du, eta bertan islatzen da azkeneko bi milioi urteetako historia geologikoa.

5. Horizontala. \_\_\_\_\_ Lakua. Siberian kokatzen da eta munduan den lakurik sakonena eta zaharrena da; planetan dagoen ur gezaren %20 dago bertan.



			<b>1.</b>							
		<b>4.</b>								
<b>5.</b>										
<b>3.</b>										
		<b>2.</b>								



#### 4. ariketa: Testerako galderak.

1. Zeintzuk dira era iraunkorran energia ekoiztu eta kontsumitzeko 2030. urterako Garapen Iraunkorren Helburuak?

- a) 6. helburua Guztioi bermatzea ura izatea eta bere kudeaketa iraunkorra, baita saneamendua ere.
- b) 7. helburua Guztioi bermatzea ordaintzea posiblea dugun energia seguru, jasangarri eta modernoa.
- c) 12. helburua Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak bermatzea.
- d) Aurreko guztiak.

2. Aurretiazko kontsulta aske eta informaturako eskubideak, enpresa multinazional batek beren lurraldean lana egiteko asmoa badu herri indigenei dagokienak, bere baitan du:

- a) Lurraldean bizi den indigena-komunitateak erazteko asmoa den proiektuari buruzko informazioa jaso behar du, baita arlo guztietan lan horiek izango dituzten ondorioen berri izan ere.
- b) Kontsultatutako biztanleek enpresaren lanei ezetza emango baliote, proiektua bertan behera geratu beharko litzateke
- c) Aurreko guztiak zuzenak dira.

3. Nazio Batuek, UNESCOren bitartez eta Mundu Ondare izendapenaren bidez, dituzten ezaugarri bereziak direla eta, eraldatu ezin diren guneak babesten dituzte. Ondorengo baieztapenen artean zein da zuzena?

- a) Fauna eta flora babestu behar diren lekuak soilik dira Munduko Kultura Ondare.
- b) Mundu Ondare izendapena duten lekuak ezin dira suntsitu baliabideak erazteko asmoz, baizik eta babestu eta mantendu egin behar dira.
- c) Ohikoa da herrialde ugarian Munduko Ondare Natural eta Kultural izendapena duten guneak aurkitzea, Kurdistan iparraldeko Hansankyef hirian gertatzen den bezala.

#### 5. ariketa: Taldean erantzun. Presak eta genero ikuspuntua

Presek dituzten ondorioak gizonengan eta emakumeengan desberdinak direla uste duzu? Zergatik?

---

---

---

---

---

---

---

## 8. IBAIAK BABESTEKO EGIN DEZAKEZUNA

1. Parte hartu herriko talde ekologistetan edo ibaiak babestekoetan; ala sortu ezazu halako beste talde bat.
2. Ikertu zure inguruko presen egoeraz.
3. Murriztu uraren kontsumoa:
  - a) Instalatu kontsumo txikiko bainu eta dutxak.
  - b) Denbora laburragoa egon zaitez dutxatzen.
  - c) Konpon itzazu itoginak eta uraren galerak.
  - d) Premiazkoa izan ezean, ez ezazu iturririk zabalik utzi
  - e) Ureztatzeko, bildu euri-ura.
4. Argindarraren kontsumo murriztu ezazu:
  - a) Etxean diren gailuak jasangarriagoak diren beste batzuentatik aldatu.
  - b) Programatu termostatoa energia aurrezteko.
  - c) Garbitu arropa ur hotzarekin garbigailuan.
  - d) Arropa eguzkitan lehortu, sikagailua erabili beharrean.
  - e) Bonbillak fluoreszenteengatik aldatu.
  - f) Instalatu ura berotzeko eguzki-berogailuak.
  - g) Gailu elektriko gutxiago erabili.
  - h) Erabiltzen ari ez zarenean, desentxufa itzazu gailuak.
5. Parte har ezazu Ibaietan lana egiteko Nazioarteko Ekintza Egunean (martxoaren 14an).

## 6. ariketa: Taldeka. Zer egingo duzu?

1. Zer gertatuko litzateke zure etxe ondoan presa bat eraikiko balute? Bildu zaitezte taldetan, eta erabaki ezazue nolakoa litzateke kasu hori jorratzeko dokumental laburra. Zein litzateke gai zentrala? Nor elkarrizketatuko zenukete? Zeintzuk lirateke galderak? Zeintzuk irudi aukeratuko zenukete?

---

---

---

2. Irakurri ibaiak babesteko egin dezakezun kontuen zerrenda eta hiru aukeratu, zure egoeran egingarrienak iruditzen zaizkizunak.

---

---

---

## **WEBGUNE INTERESGARRIAK**

**International Rivers – Convocante del Día Internacional de Acción por los Ríos (14 de marzo).**

<http://www.internationalrivers.org/es/d%C3%ADa-mundial-de-acci%C3%B3n-en-defensa-de-los-r%C3%ADos>

**Press Release | Breaking News: Brazil's Environmental Agency Denies Operating License to Controversial Belo Monte Dam**

<http://www.internationalrivers.org/resources/9135>

**UNDP - Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS)**

<http://www.undp.org/content/undp/es/home/mdgoverview/post-2015-development-agenda.html>

**Agencia Internacional de la Energía**

<http://www.iea.org/>

**Movimiento Damocracy**

<http://www.damocracy.org/>

**Convención sobre la protección del patrimonio mundial, cultural y natural**

<http://whc.unesco.org/archive/convention-es.pdf>



## **5. Ariketa: Taldeka. Presek dituzten ondorioak gizonengan eta emakumeengan desberdinak direla uste duzu? Zergatik? Galderarako argumentarioa**

Eraginak bestelakoak dira, sistema patriarkalak ezarritako rol-banaketa dela eta, emakume eta gizonen artean desberdinak direnak. Emakumeak etxeko kontuez arduratu ohi dira, eta baita umeen eta gaixorik dauden edo adinekoak diren familiako kideen zaindari egon ere. Halaber, legeak oztopo ez direnean ere, ohiturek bultzatuta, gizona izaten da lurralde-eremua edo eraikinaren jabetza-eskubidea lortzeko eraztasuna duena; hori dela eta, gizonen esku gertatzen dira eraikina ala lur-eremua galduz gero lortzen diren diru-laguntzak, eta, emakumeak bakarrik daudenean (gizonik gabe), diru-laguntza horiek bertan behera gelditzen dira. Marginalizazio-egoerak direla eta (formazioa, bizitza soziala, lan-merkatuan parte hartzeko aukera, mugimendurako askatasuna, nortasun-agiria edo zaintzara bideratutako lanak), askotan emakumeek aukera murrizagoak dituzte beren eskubideak aldarrikatzeko prozesua abiarazteko.

Desplazatutako (lekuz aldarazitako) gehiengoa emakumeak, neskatoak eta mutikoak dira. Landa-guneetan bizi direnez, presen eragina nozitzen duten emakumeen gehiengoa lurrarekiko erlazio estu betean bizi da. Naturak eskaintako baliabideak elikatzeko erabiltzen dituzte, baina familiak beharrezkoak dituen beste hainbat ondasun ere baliatzen dituzte beren kontsumorako, hala nola, belar sendagarriak, sutarako egurra... Zentzu horretan, emakumeak dira ingurugiroaren izorratzearen biktimarik nagusienak, eta horrek galera handiak eragiten dizkie beren bizirautea naturaren mende duten komunitateei.

Ugariak dira garapen bidean dauden eremuetako landa-guneetan ezarritako enpresa transnazionalen erruz garatutako arazoak, lehen existitzen ez zirenak, hala nola, umeen prostituzioa edo gizakien salerosketa bezalakoak. Oro har, gizonak baizik ez doaz halako enpresetara lanera, atzerritarak edo herri- eta hiri-guneetakoak direnak.

## **8. IBAIAK BABESTEKO EGIN DEZAKEZUNA**

Atal honen helburua ikasleen arteko konpromisoa eta antolatutako gizarte-ekintza garatzea da, sormena bultzatuz eta konponbideak erdiesteko talde-lana bideratuz; hori guztia garatzeko, ikusentzunezko baliabideak tresna bezala izanez.

### **KCD GGKEek egindako gida honi buruz:**

#### **Ikerketa, erredakzioa eta zuzenketa**

Greta Frankenfeld  
Cristina Alba Pereda  
Leire Pascual Basauri  
Begoña Garrobo Calleja  
Juan Carlos Vázquez Velasco

Barakaldon, 2015eko abenduan.

#### **Aholkularitza**

CIFP Tartanga LHII (Erandio)  
IES Mungia BHI (Mungia)  
IES Ballonti BHI (Portugalete)  
IEFPS Iurreta GLHBI (Iurreta)  
IES Ibarrekolanda BHI (Bilbao)  
IES Artaza–Romo BHI (Leioa)  
IES Aixerrota BHI (Getxo)  
CIFP Nicolás Larburu LHII (Barakaldo)